

Goxo-goxo afaltzen

Kalderapeko jatetxera joan dira Michael eta Ana. Han elkarren berri izan eta intimatu egin dute.

Saio honetan, hitzordua egiten, jatetxe batean afaria eskatzen eta informazioa trukatzeko ikasiko dugu. Lekuzko deklinabide kasuak (NON, NORA, NONDIK) ere bai. A1.1 mailaren errepasoak ere egingo dugu. Animo!

Ana and Michael have gone to supper and they have spoken more. In this lesson we will make plans, exchange information and practice subjects connected with a restaurant menu. We will also find out about new declinations: NON, NORA, NONDIK. We will also revise the content of A1.1.

Irakurmena

Egunean zehar egin duten kontatu ondoren, Michael eta Ana plana egiten hasi dira. Irakurri eta erantzun galderei.

After talking about what they have done during the day, Michael and Ana have started to make plans. Read the conversation and answer the questions.

Plana egin eta jatetxera!

- Bueno, Ana, plana egin behar dugu, Euskal Herria ezagutu nahi dut eta.
- Konforme. Ni oraindik ez naiz Gipuzkoan egon eta zu?
- Ni ere ez.
- Bueno, ba, bihar Gipuzkoara joan nahi duzu?
- Gipuzkoara? Ondo, baina, nora?
- Ez dakit, Arantzazura, Bergarara, Iruna... Ez dakit, leku interesgarri asko daude.
- Bueno, Nik Donostiara joan nahi dut.
- Primeran, nik ere bai. Zer ordutan geratu nahi duzu?
- Zazpitan.
- Goizeko zazpitan? Oso goiz da!
- Itxaron, itxaron, joan nahi duzu orain jatetxe batera? Biharko plana han egin ahal dugu.
- Ideia bikaina!
- Nora joan nahi duzu? Hemen gida bat dut: "Harresi Handia" jatetxe txinora, "Kupela" sagardotegira, "Branka" jatetxera, Burger Kingera, Kalderapekora?
- Ez, dakit. Txinora eta Burger Kingera ez. Kalderapekora esan duzu? Zer da hori?
- A, Kalderapeko taberna da. Gaur goizean, badakizu, hamarretan alde zaharrera joan naiz eta Kalderapeko taberna ikusi dut. Giro euskalduna dago, euskal produktuak eta menu merkeak.
- Nolakoa da taberna?

- Handia eta polita. Perro kalean dago, ondoan arropa denda bat dago, eta gainean euskaltegia dago. Ez da taberna txikia, barra ondoan mahaiak eta aulkiak dituzte eta atzean eszenaleku txiki bat.
- Eta musika?
- Euskal musika dago. Benito Lertxundi, Kenzazpi, Mikel Laboa, Iزارo...
- Mikel Laboa, zer ona!
- Bai, oso ona.
- Eta giro ona dago tabernan?
- Izugarria eta, gainera, merkea da.
- Bueno, bueno, goazen Kalderapekora.
- Zer ordutan? Zortzietan, ondo? Edo oraintxe?
- Orain ez, prestatu egin behar dut. Gelara joan, prestatu eta... Zer ordu da orain?
- Orain, zazpi eta erdiak dira.
- Bale, ba, zortziak eta laurdenetan ondo?
- Oso ondo. Eta afaldu eta gero zer, parrandara?
- A, bueno, agian bai, baina bihar goizean Donostiara joateko...
- Tira, ikusiko dugu. Gaur jatetxera eta bihar... Donostiara.

Hiztegia

Oraindik: yet

Leku interesgarri asko: many interesting places

Primeran: oso ondo. Very well

Egin ahal dugu: we can do

Idea bikaina: a great idea

Harresi handi: great wall

Eszenaleku: stage

Izugarria: terrible; very good

Goazen: let's go

Erantzun egokia aukeratu. Choose the right response

1.- Nora joan nahi du Anak?

- Gipuzkoara
- Arabara

2.- Anak Bergarara joan nahi du?

- Ez, ez du Bergara joan nahi.
- Bai, Bergarara joan nahi du.

3.- Zer ordutan geratu nahi du Michaelek?

- Seietan
- Zazpian

4.- Anak jatetxe txinora joan nahi du?

- Bai
- Ez

5.- Non dago Kalderapeko taberna?

- Guggenheim ondoan
- Alde Zaharrean

6.- Non dago eszenalekua?

- Barra ondoan, aulki eta mahairen ondoan
- Atzean

7.- Koldok eta Anak

- Afari merkea egin nahi dute.
- Afari garestia egin nahi dute.

8.- Zer da Iزارo?

- Tabernaria da
- Abeslaria da

9.- Zer ordutan joango dira tabernara?

- Zortziak eta laurdenetan
- Zazpi eta erdietan

10.- Nora joan nahi du gauean Michaelek?

- Jatetxera eta Donostiara
- Jatetxera eta parrandara



Goazen Kalderapekora

azalpena

Lekuzko deklinabide kasuak

NORA deklinabidea

The NORA declination is used to say WHERE TO. These are the forms in singular:

Izen arruntak -(e)RA			Izen nagusiak -(e)RA edo -A	
Bokala RA	Kontsonantea ERA		Bokala RA	Kontsonantea ERA/A
MendiRA EtxeRA KaleRA	AutobusERA KomunERA TontorrERA		LazkaoRA ArgentinaRA TxileRA	GasteizA/ERA MadriA/ERA SudanA/ERA

- Gu astero mendira joaten gara.
- Lagunak bihar etxera etorriko dira.
- Zuek kalera joango zarete.
- Datorren urtean Euskal Herrira joango gara.

Erakusleak/ Demonstratives

Singularra

HAU	HORI	HURA
HONETARA	HORRETARA	HARTARA

Plurala

HAUEK	HORIEK	HAI EK
HAUETARA	HORIETARA	HAIETARA

Zuek hotel horretara joango zarete
Mendi haietara igoko gara.

*You (plural) will go to that hotel.
We will go up those hills.*

NONDIK deklinabidea

The NONDIK declination is used to say WHERE FROM. These are the forms in singular:

Izen arruntak (e)TIK		Izen nagusiak (e)TIK edo TIK/DIK	
Bokala TIK	Kontsonantea ETIK	Bokala TIK	Kontsonantea ETIK TIK/DIK
MendiTIK EtxeTIK KaleTIK	AutobusETIK KomunETIK TontorrETIK	LazkaoTIK ArgentinaTIK TxileTIK	GasteizETIK/TIK MadriLETIK/DIK SudanETIK/DIK

Singularra

HAU	HORI	HURA
HONETATIK	HORRETATIK	HARTATIK

Plurala

HAUEK	HORIEK	HAIEK
HAUETATIK	HORIETATIK	HAIETATIK

Zuek hotel horretatik joango zarete. Mendi haietatik jaitsiko gara.	You will go from that hotel. We will come down from those hills.
--	---

Osatu esaldiak

Jarri deklinabide kasua. batzuetan posible da nondik eta nora.
Decline the words. In some cases, you can use either case, NONDIK or NORA.

Nondik? Nora?

Mikel gaur mendi___ joan da.
Zuek parranda___ etorri zarete.
Gu eskola___ joan gara.
Lagunak lantegi___ oso nekatuta irtengo dira.
Zuek ez zarete etxe___ joan.
Patxi taberna___ irten da.
Haiek lan___ taberna___ joan dira.
Haurra lur___ erori da.
Ines Gasteiz___ joan da, eta Mikel Bilbo_____.

Inauterietan Lantz_____ joango gara denok.
 Balkoi_____ atera dugu argazkia.
 Nekatuta gaude eta etxe_____ joan gara.
 Lur_____ ez da ezer hartu behar.
 Gu aurten, oporretan, Mediterraneo_____ joan gara.
 Hil honetan, euskaltegira jende asko etorri da Irun_____ eta Gasteiz_____,
 Ikastaro honetan, irakasleak Argentina_____, Uruguai_____, Txile_____, Brasil_____,
 Peru_____ eta Kolonbia_____ bidali nahi du materiala.

Laguntza!

Lur → Lurrera
 Lur → Lurretik

Entzumena

Ana eta Michael iritsi dira jatetxera. Entzun elkarrizketa eta asmatu zer eskatu duten.
 Ana and Michael have just reached the restaurant. Listen to the recording and guess what they have chosen for supper.

Zer menu eskatu dute Kalderapekon?

1

Urdaiazpikoa
 Entsalada
 Legatza
 Xerra
 Intxaur saltsa
 Zukua
 Ardo gorria

2

Urdaiazpikoa
 Entsalada
 Txipiroiak
 Legatza
 Arroz esnea
 Intxaur saltsa
 Ardo gorria

3

Entsalada
 Zainzuriak
 Legatza
 Txipiroiak
 Arroz esnea
 Intxaur saltsa
 Ardo gorria

Orain, aukeratu erantzun egokia. Now choose the right answer.

1.-Jatetxean badago lekurik?

- a) Bai, badago.
- b) Ez, ez dago lekurik.

2.- Jatetxean badute menurik?

- a) Ez, ez dute menurik.
- b) Bai, badute.

3.- Kalderapekon badago entsaladarik?

- a) Ez, ez dago entsaladarik.
- b) Bai, badago.

4.- Postrerik jan dute?

- a) Bai, jan dute.
- b) Ez, ez dute jan postrerik.

5.- Ardorik eskatu dute?

- a) Ez, ez dute ardorik eskatu.
- b) Bai, eskatu dute ardoa.

Entzumena

Entzun elkarrizketa eta aukeratu erantzuna.
Listen to the conversation and choose the best answer.



Goxo-goxo afaltzen

1.- Entsaladak badu endibiarik?

- Bai, badu.
- Ez, ez du endibiarik.

2.- Entsaladak badu tomaterik?

- Bai, badu.
- Ez, ez du tomaterik.

3.- Michael nahi du entsaladarik?

- Bai
- Ez

4.- Noiz joan da dutxara Ana?

- Hamaiketan joan da dutxara.
- Hamarretan joan da dutxara.

5.- Nora joan da hamarretan Michael?

- Bidaia-agentziara joan da hamarretan Michael.
- Bidaia-agentziara hamarretan Michael joan da.

6.- Nora joan da Michael bidaia-agentziatik?

- Dendara.
- Ileapaindegira.

7.- Michael hoteleko saunara joan da?

- Ez, ez da saunara joan.
- Bai, joan da saunara.

8.- Nora joan da saunatik?

- Kafetegira.
- Gelara.

9.- Zertarako joan da saunara?

- Erlaxatzeko eta izerditzeko joan da saunara.
- Saunara joan da argaltzeko.

10.- Anak nahi du ardorik?

- Bai.
- Ez, ez du ardorik nahi.

11.- Zertarako da labana berezia?

- Postrea jateko.
- Arraina jateko.

12.- Ana siestara joan da arratsaldean?

- Bai, siestara joan da.
- Ez, ez da siestara joan.

14.- Zer ordutan idatzi du etxera?

- Seietan.
- Zazpitan.

15.- Zertarako jarri du Michael ahozapia paparrean?

- Ez zikintzeko.
- Eskuak garbitzeko.

16.- Non idatzi ditu e-mailak Michael?

- Kafetegian idatzi ditu.
- Gelan idatzi ditu.

17.- Zer egin du bostetan Michael?

- Kalera joan da.
- Ileapaindegira joan da.

18.- Nora joan da Euskalduna jauregitik?

- Kafetegira.
- Guggenheimera

19.- Anak nahi du intxaur-saltsarik?

- Bai, nahi du.
- Ez, ez du nahi.



Testua osatu

Egunen batean Euskal Herriko jatetxe batean izango zara. Osatu elkarrizketak eta praktikatu hizkuntza.

Perhaps you will visit a restaurant in the Basque Country soon. Complete the sentences and practise the language.

Jatetxean**Lehenengo elkarrizketa**

ardorik arrozik baduzue duzue zainzuririk

- Kaixo, gabon! Zer nahi _____?
- Bueno, baduzue _____?
- Arroza? Bai, noski.
- Arroza, orduan.
- Bueno, baduzue zainzuririk?
- Ez, _____ ez. Barkatu.
- Berdin da, nik ere arroza.
- Bigarrenez, arraina ala haragia?
- _____ arkume-txuletarik?
- Bai, onak gainera.
- Ba, nik arkumea.
- Nik ere bai.
- _____?
- Ez, ardorik ez. Ura edango dugu.

**Bigarren elkarrizketa**

ardorik baditugu baduzue dugu kartarik menurik

- Kaixo, _____ nahi?
- Ez, ez _____ nahi. Menua jango dugu. _____ makarroiak?
- Ez, menuan ez. Baina kartan _____.
- Eta... lasagnarik?
- Ez, hori ere kartan.
- Tira, orduan ez dugu nahi _____. Ekarri karta, mesedez.
- Oso ondo. _____ edango duzue?
- Bai, Errioxakoa, mesedez.

Lotu bi zutabeak: Zertarako dira?

Jatetxean protokoloa oso garrantzitsua da. Esan zertarako diren tresna hauek.
Lotu bi zutabeak.

If you go to a restaurant, it is very important to know the protocol. Say what there things are for. Link the columns.

Etiketa eta protokoloa

Plater sakona
Plater zapala
Plater txikia
Edalontzia
Kopa handia
Kopa txikia
Kopa luzea
Labana
Koilara
Koilara txikia
Labana txikia
Ahozapia
Mahai-zapia
Kikara

Ardoa edateko
Edateko
Ezpainak garbitzeko
Haragia jateko
Janaria mozteko, ebakitzeko
Kafea hartzeko
Mahaia ez zikintzeko
Postrea jateko
Postreak ebakitzeko
Postreak hartzeko
Txanpaina edateko
Ura edateko
Zopa hartzeko
Zopa jateko

ariketa

Jatea ohitura da Euskal Herrian. Baina, ondo jatea garrantzitsua da. Kokatu elikadura piramidean beheko elikagaiak. Zazpigarren saioan landu genituen janariak; ea izenekin gogoratzen zaren.

In the Basque Country we like eating well. But while eating well is important, eating healthily is even more so. Put the food into the nutrition pyramid. This will help to see if you remember the words we learned in lesson seven.

Ondo jan eta ondo bizi**Gozoak koipeak****Arraina, haragia,
esnekiak eta arrautzak****Barazkiak eta fruituak...****Ogia, pasta eta laboreak**

sagarra	jogurta	oilaskoa	legatza
piperrak	arroza	gazta	dilistak
mahatsa	txokolatea	izozkia	
madaria	gurina	ogia	
	esnea		
makarroiak	tomatea	tipula	olioa
			pastelak

Egunero denetik jan behar dugu.
 ogia, pasta eta laboreak 6-11 zati
 barazkiak 2-3 zati
 fruituak 3-5 zati
 arraina eta haragia 2-3 zati
 esnekiak 2-3 zati
 gozoak eta koipea oso gutxi

Irakurmena

Irakurri beheko testutxoak eta erantzun galderei.

Read the texts and answer the questions. You can choose more than one option.

Dietak

Gure mundua oso globalizatuta dago, eta urrutira joan gabe denetik dugu. Euskal Herrian ere jatetxe eta dieta desberdinak ditugu, mundu osokoak. Horregatik, denetik eta sano jan behar dugu.

Janari makrobiotikoak



Japoniatik iritsi dira Euskal Herrira. Janari guztiak ying eta yang dira. Ying eta Yangen artean oreka, ekilibrioa, aurkitu behar dugu. Ying janariak: arrautzak, esnekiak, tomatea, fruitu tropikalak... dira.

Yang produktuak: algak, barazkiak, lekariak eta zerealak dira. Azukrerik ez da jan behar. Onena arrosa da.

Barazkijalea



Dieta zorrotza da, gogorra. Arrainik eta haragirik ezin da jan. Batzuek arrautzak hartzen dituzte, besteek ez. Irina, azukrea eta poteko jakiak jan ahal dira. Dieta hau Indiatik dator. Haragia txarra da bihotzerako eta ez dugu jan behar. Beste batzuen ustez, animaliak ez ditugu hil behar guk jateko, animaliek eskubideak dituztelako.

Dieta mediterranea



Mediterraneotik iritsi da dieta hau. Bere oinarria oliba-olioa da. Animalien koipeak ez ditugu jan behar.

Dietaren osagai nagusiak barazkiak, lekaleak, fruitu lehorrak eta zerealak dira, eta batzuetan, laguntzeko, arraina eta haragia.

Hiztegia

Artean: between
Esnekiak: dairy products
Onena: the best
Zorrotza: strict
Eskubideak: rights
Osagai: ingredient

Badu ala ez du?

DIETA	Arrautzarik?	Haragirik?	Fruitu lehorrik?
makrobiotikoak			
barazkijaleak			
mediterraneoak			

Fororako

Laster asteburua kanpoan pasatuko duzu. Antolatu dieta osasuntsua.
Imagine that you are going to spend the weekend away from home. Prepare a healthy diet for two days.

Dieta osasuntsua

1 eguna	2. eguna



Dieta kaltegarria

1 eguna	2. eguna

Zutabeak lotu

Ikusi irudiak eta esan: Nongoa da?
Here are some international dishes. Say where they come from.

Janari tipikoak



1-Hallaga



2-Hanburgesa



3-Mousaka



4-Sushia



5-Takoia



6-Angulak



7-Cous-cousa



8-Udaberri-erroilua

Nongoak dira?

1. Hallaga
2. Hanburgesa
3. Moussaka
4. Sushia
5. Takoa
6. Angulak
7. Cous-Cous
8. Udaberri-erroilua

Estatu Batuak
Grezia
Euskal Herria
Japonia
Maroko
Mexiko
Txina
Venezuela

Orain, galderak erantzun, herriaren izena erabiliz.
Now answer the questions using the names of the countries.

Erreparatu adibideari. Look at the example.

Nongoa da Hallaga? **Venezuelakoa**
Hallaga jan nahi dut. Nora joan behar dut? **Venezuelara**

Nongoa da Sushia?
Sushia jan nahi dut. Nora joan behar dut?

Nongoa da Takoa?
Nora joan behar dut takoa jateko?

Nongoa da asadoa?
Asadoa jan nahi dut. Nora joan behar dut?

Nongoa da Feijoada?
Feijoada jan nahi dut. Nora joan behar dut? Brasil

Nongoak dira Hempanadas de horno?
Nora joan behar dut hempanadas de horno jateko?

Nongoa da Ajiakoa?
Ajiakoa jan nahi dut. Nora joango naiz?

Nongoa da Cau Cau a la limeña?
Cau Caua jan nahi dut. Nora joango naiz?

Azken lana

Egin ariketak eta bidali irakasleari

Do the exercises and send them to your teacher

Idatzi ordua

Write the time.

Zer ordu da?	Zer ordutan da?
08:30-	08:45-
10:20-	11:15-
11:45-	12:00-
12:30-	13:00-
15:00-	16:30-
16:50-	17:35-
18:17-	19:15-
19:45-	20:10-
21:00-	21:50-
22:15-	22:30-
23:05-	23:45-

Deklinatu hitzak

Decline the words.

Zuek Valentzia___ bizi zarete.
 Ume___ tarta osoa jan dute.
 Lapur___ ez dute lagunik.
 Nagusi___ egia esan du.
 Bulegari___ gaur etorri al dira lanera?
 Zuek zenbat liburu___ irakurri dituzue aurten?
 Bezero___ ez dute ezer erosi.
 Dendari___ ez dute ezer saldu nahi.
 Dendari___ berandu iritsi dira.
 Ana___ auto berria ekarri du.
 Bizilagun___ hor bizi dira.
 Bizilagun___ etxe berria erosi du.
 Bizilagun___ gaur ez du egunkaririk erosi.
 Adiskide___ askotan kontatzen ditu txistek.

Partitiboa: (r)IK

Osatu esaldiak eta gero lotu zutabeak.

Complete the sentences and then link the two columns.

Nik ez dut etxe____.
 Zuk ez duzu nahi informazio____.
 Guk ez dugu behar diru____.
 Amaiak ez du nahi lan____.
 Hemen ez dago txakur____.
 Ogi____ nahi duzu?
 Esne____ erosi behar duzu?

Do you want some bread?
 Are you going to buy milk?
 Amaia doesn't want to work.
 There are no dogs here.
 We don't need money.
 You don't want information.
 I don't have a house.

Deklinatu hitzak (lekuzkoak)

Decline the words.

NON dago Michael?	Ospitale AN Hondartza Lantegi Euskaltegi Madril	Zinema Brujas Gasteiz Etxe Ospitale	Komun Eskoriatza Burgos Zelai Burtsa
NORA joango da Ana?	Taberna RA Euskaltegi Plaza Geltoki Autobus Bartzelona	Eskola Bulego Lantegi Kabul Hegazkin Kotxe	Logela Sukalde Sevilla Benidorm Eliza Harategi
NONDIK etorri dira Ana eta Michael?	Iruñea TIK San Fermin Berlin Etxe Plaza Euskaltegi	Lorategi Mendi Caracas Jatetxe Okindegi Roma	Ohe Kartzela Beasain Buenos Aires Oihan Baso-

Idatzi

Erantzun e-mail honi eta lagundu lagunari
Answer this e-mail and help your friend.



Kaixo, lagun, zer moduz?
Ni ondo, baina urduri. Gaur afaria dut, eta urduri nago. Zita bat dut, eta beste pertsona maite dut. Afari hau oso inportantea da, eta ez dut afarian hanka sartu nahi.
Kalderapekora joan nahi dut. Jatetxe ona da, ezta? Edo, agian, Kafe antzokira?
Laguna beganoa da. Zer eskatu behar dut? Zer edan behar dut? Nola hitz egin behar dut?
Lagundu, mesedez, oso urduri nago



Amaiur

***Amaiur izenak genero guztietako jendearentzat balio du.**

***Amaiur is a Basque name that applies to all genres.**

Ikasgai honetan hau ikasi duzu:

- Elkarrizketetarako estrategia komunikatiboak.
- Communication strategies.
- Jatetxean jatekoa eskatzen.
- To ask for food in a restaurant.
- Jatetxe bateko karta ulertzen.
- Vocabulary connected with food in a restaurant.
- Lekuzko deklinabide kasuak: NON, NORA, NONDIK.
- Cases to express place: NON, NORA, NONDIK
- Galderetan BA erabiltzen. Ezezko esaldietan (R)IK erabiltzen, EGON eta UKAN aditzekin.
- Revise BA- in questinos, and the partitive -RIK. (EGON AND UKAN)

Hiztegia

Ahozapi	Napkin
Arroz-esnea	Rice pudding
Atun	Tuna
Azpizun	Sirloin
Bai horixe!	Of course
Betekada	Stomach-full
Bikaina	Excellent
Dator	(he/she) comes; third person of to come
Desberdinak	Different
Enbidia	Envy
Eskubide	Right (giza eskubideak=human rights)
Gozozale	Person with a sweet tooth
Hitzordu	Date
Interesgarri	Interesting
Intxaur-saltsa	Pudding made with walnuts; similar to rice pudding
Jatetxe	Restaurant
Labana	Knife
Lekari	Pulse
Merkea	Cheap
Oinarria	Base
Oreka	Balance
Papar	Breast
Parranda	Big night out
Samurra	Tender
Tipula	Onion
Tira	Let's go / Well...
Txipiroi	Squid
Zorrotza	Strict



Euskal sukaldaritza eta sukaldariak

Euskal Herrian jatetxe eta sukaldari asko dago. Janaria eta edaria atsegin dugu euskaldunok. Lehen mailako produktuak ditugu eta hori da gure gastronomiaren sekretua. Arrain freskoak: legatza, sardinak, antxoak, txipiroiak, txangurroa, bakailaoa, angulak. Haragi samurra: txekor, behi eta idi txuleta, azpizuna. Edariak: sagardoa, txakolina eta ardoa. Gure sukaldariek goxo-goxo prestatu behar dituzte produktuak jatean. Orijinaltasun eta kalitate handia dute eta Michelin Gida ospetsuan ikusi ahal dugu hori.

Gaminiz jatetxeak bi izar ditu.**

Mugaritz jatetxeak bi izar ditu. *** Munduko laugarren jatetxea da orain

Argiñano jatetxeak bi izar ditu. **

Berasategi jatetxeak hiru izar ditu.***

Zortziko jatetxeak bi izar ditu.**

Rodero jatetxeak bi izar ditu. **

Arzak jatetxeak hiru izar ditu.*** Munduko zortzigarren jatetxea

Zaldiaran jatetxeak izar bat du.*

Akelarre jatetxeak hiru izar ditu.***

Europa jatetxeak bi izar ditu.**



Aitor Elizategi, Gaminiz jatetxea. Plentzia, Bizkaia.



Luis Aduriz, Mugaritz jatetxea. Errenteria, Gipuzkoa.



El Portalon jatetxea. Gasteiz, Araba.



Carlos eta E va Argiñano, Argiñano jatetxea. Zarautz, Gipuzkoa.



Martin Berasategi, Berasategi jatetxeak.



Daniel Garcia, Zortziko jatetxea, Bilbo.



Koldo Rodero, Rodero jatetxea. Iruñea, Nafarroa.



Juan Mari Arzak



Gonzalo Anton, Zaldiaran jatetxea. Gasteiz, Araba.



Pedro Subijana, Akelarre jatetxea. Donostia, Gipuzkoa.



Pilar Idoate, Europa jatetxea. Iruñea, Nafarroa.